

kerea eta bere itxurea uxatu nahi daben legez, nonbait "Chirio eleison" kanta gurarik. Baina ilustrazino-zale horreek jakin behar leuke, Real Academia Española-k berak esaten daukela, izen propioak eta toki izenak, toki bereko izkuntzaz nahiz dialektuz gorde behar dirala, euren grafia ta guzti.

Baina, Amatiño erkidea,* asko dira gure errian, legetik komeni jaken partea bakarrik artzen dabena. Eta barriz be, gure ziri puntok ondo zorroztu beharko doguz, gogoia daukanak jakin daian zer zelan dan. Eta ba daukagu esatekorik asko.

Portale

Eibar

Kale izenak

"Zeruko Argia" Eibarko barri emoiile dan Amatiño-ren idazkiak beti irakurten dodaz gogo onez, ze honek beti be agertzen dau Plaentxiako uren ikutua, bere esanguretan ziria agertuaz.

345-garren zenbakian ekarren kale izenezko zertzelada luze bat, eta ez arrazoi barik. Izan be, kale izenak ipinten arduratu diranak ez dira asko arduratu zelan eta zegaitik jakiten; eta lehendik euskal izena eukenak hala-hola ipini dira, euskerazko grafia eta erderazkoa nahastaturik. Hori bai, handik edo hemendik, gu beti kaltean.

Nok asmatu ote eban: Txirixo Kalea, Calle de Chirio? *Chirio* ospetsua nor ote* zan? Amatiñok jakingo dau bere nondikoa. Txoritxo mota* bat ei zan Txirixoa, Eibarko eskopetak erriaren lur azaletik aspaldi uxatu ebena, gaur kanpolarrosa etxe-kardo horreetarikoak eus-